

HEZKUNTZA SORTZAILERi buruzko TAILERRA MARGA ÍÑIGUEZekin

Bereziki antolatua irakasleentzat (hezkuntza-esparruko maila guztiak)

SORMENA: EKINTZAK SORTZEN

Arratsaldeko ordutegia. Maiatzaren 25ean eta 26an, asteartea eta asteazkena, 17:30etik 20:30era.

Proiektu propioez aritu: izen-emateak barne hartzen du (nahi dutenentzat) 30 minutuko saio bat, maiatzaren 27an, osteguna, talde txikietan, arratsaldeko ordutegian.

Izena ematen duzunean, adierazi maiatzaren 27ko **Proiektu propioez aritu** atalaren gaineko interesa baduzun eta, mesedez, lehentasunen bat baduzun ordutegiari dagokionez, helbide honetara mezua bidalita: **producciones@teatrogayarre.com:**

Bai, **Proiektu propioez aritu** atalean parte hartu nahi dut, ordutegi honetan:

- 17:30ean
- 18:00etan
- 18:30ean
- 19:00etan
- 19:30ean
- 20:00etan

Lekua: **Gayarre Antzokia**

Izen-emate orokorra: **75 €**



Gayarre Amigos tarifa, Gayarre Jóvenes, Pase Maestro,
eta NAPAE, AESZE.Na eta ESNA elkarteetako kideak: **30 €**

- **Plaza mugatuak.**
- Matrikula **Internetez ordain daiteke** (www.teatrogayarre.com), eguneko 24 orduetan, **edo antzokiko leihatilan** (asteartetik igandera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era. Astelehenetan itxita egoten da, atsedeen-eguna delako).
- Izen-ematea formalizatzeko ordenari zorrotz jarraituko zaio plazak emateko.
- Matrikularen zenbatekoa soil-soilik itzuliko da, 15 egun naturaleko epea baino lehen egiten bazaio uko ikastaroari.
- Eskainitako plazak baino eskaera gehiago jasotzen badira, itxaron-zerrenda bat osatuko da.
- Ez bada lortzen beharrezkoa den parte-hartzaile kopurua, jarduera ez da egingo eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da.
- Gayarre Antzokia Udal Fundazioa da antolatzen ditugun ikastaro eta tailerretarako izen-emateak kudeatzeko xedearekin jasotzen diren datuen tratamenduaren arduraduna. Ez dago aurreikusita datu horiek lagatzea. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubidea gauzatu ahal dituzu. Informazio gehigarria gure webguneko pribatutasun-politikaren atala kontsultatuta lor daiteke: www.teatrogayarre.com

SORMENA: EKINTZAK SORTZEN

Hezkuntza sortzailea, beharrezkoa baino gehiago, urgentzia da, eskubidea. Beren berezitasun-gaitasun guztiak hedatzeko pertsona guztiak duten eskubidea. Eta urgentzia etengabe aldatzen ari den gizarte baten aurrean, gizartearen aldaketa horietarako arazoak konpontzeko, egoera berrietara egokitzeko eta erantzun irudimenezkoak eta eraikitzaileak bilatzen jakiteko gaitasuna eskatzen baita.

Parte-hartzaileen sormena bera mugiarazteko asmoa izango dugu, etengabe aldatzen ari den mundu batean eskola baterako hezkuntza-planteamenduei buruz gogoeta egiteko eta sortzeko baliabidea nola den dena esperimentatzeko asmoa. Sortze-prozesuari helduko diogu, aldeko giroei, desikasteari, akatsei, eraldaketei, sortze-ebaluazioari eta sormenari, gertakari global moduan.

Eta funtsean praktikoa den lana eginez egingo dugu, askotariko proposamenekin: bakarkakoak, taldekoak, isilik, jardunean, egoera erreal eta hipotetikoekin. Saioaren edukiak eta praktikak taldearen beraren “benetako” beharrek markatuko dituzte. Zenbait bide esperimentatuko ditugu ideia jatorrak eta berritzaileak sortu eta aurkitzeko, eta ideiak nola etortzen diren hausnartuko dugu, zerk laguntzen edo oztopatzen dituen, ideiatik gauzatzera nola joan, arintasuna-malgutasuna-originaltasuna, produktu eta proiektu berriak, ikuspegi berezia...

Bereziki antolatua irakasleentzat (hezkuntza-esparruko maila guztiak).

Arropa eroso jantzita joatea gomendatzen da.

MARGA ÍÑIGUEZ



Lizentziaduna da Filosofia eta Letretan, Arte Dramatikoan, eta aditua, sormenean eta komunikazioan. 1965az geroztik sormena, berrikuntza eta gizarte-aldaketak jorratzen aritzen da, bai erakunde publikoekin bai pribatuekin, oso arlo eta esparru askotarikoetan, Espainian, Alemanian, Frantzia, Portugalen, Suedian, Italian, Latinoamerikako herrialde ugarietan eta AEBetan. Ikastaroak, tailerrak, mintzaldiak eta aholkularitzak ematen ditu arlo askotan: garapen-planak enpresa eta erakundeetarako, hedabideak, unibertsitateak, irakasleen prestakuntza, lana emakumeekin, arte ederretako eskolak, arkitektura eta arte eszeniko eta bisualak.

Arte eszenikoekin lotutako proiektuak egin zituen 1977 eta 1992 artean Televisión Española katerako, haietako zenbait eragin eta oihartzun sozial eta kultural handikoak: “La bola de cristal”, “Barrio Sésamo”, “Pista libre” eta “Pasando”.

Ikastaro, tailer eta mintzaldien artean, hauek nabarmendu behar dira: RESA Derako egindakoak, INAEMeko Ikuskizunaren Teknologiararen Zentrorako, VACA proiektua, Arte Eszenikoetako Emakumeen Plataformarako eta, antzerkian, “Pabellón 6” Bilbon.

2009an, Emakume Sortzailea saria jaso zuen, “Sormenaren Europako Urtearen” esparruan, bere ibilbide profesionalarengatik.